

3/2021 EBAZPENA, 2021eko apirilaren 27koa

RESOLUCIÓN 3/2021, de 27 de abril de 2021.

BATZORDEBURUA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

BATZORDEKIDEA: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laradogoitia.

VOCAL: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laradogoitia.

BATZORDEKIDE IDAZKARIA: César Alonso Campo.

VOCAL SECRETARIO: César Alonso Campo.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordeak, goian adierazitako kideek osatuak, honako EBAZPENA ezarri du,

jaunak aurkeztutako erreklamazioaren aurrean. Izan ere, Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak 2021eko urtarrilaren 25ean informazio-eskaera ukatzea erabaki zuen. Cesar Alonso Campo jauna aritu da hizlari, eta Batzordearen iritzia azaldu du.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente RESOLUCIÓN ante la reclamación formulada

, contra denegación de su solicitud de información, acordada por el Director General de la Hacienda Foral de Bizkaia el 25 de enero de 2021. Actúa como ponente D. César Alonso Campo, quien expresa el parecer de la Comisión

AURREKARIAK

ANTECEDENTES DE HECHO

LEHENENGOA. 2020ko azaroaren 4an, jaunak honako informazio-eskaria aurkeztu zuen Correos-en, Bizkaiko Foru Aldundiari zuzenduta:

PRIMERO. El 4 de noviembre de 2020 Don presentó en Correos la siguiente solicitud de información dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

"LEHENENGOA.- Segurtasun Sailak, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren bidez, ordainketa batzuk egin dizkie (diru publikoa) Ertzaintzako langileentzako kalte-ordainen gastuei dagozkien atxikipenen kontura (2011-12-13-14-15eko ekitaldietan), Euskal Autonomia Erkidegoko

"PRIMERO.- He tenido conocimiento que el Departamento de Seguridad y a través de Dirección de Función Pública, ha realizado unos pagos (dinero público) a cuenta de las retenciones correspondientes a los gastos por indemnizaciones al personal de la ertzaintza en



ogasun publikoei (PFEZn ordaindu beharrekoak), bere garaian ez baitziren ordaindu. Kontuan hartuta Ertzaintzako zenbait funtzionariok Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten dutela errenta-aitorpena eta zuk egin behar izan dizkiozula funtzionario horien ordainketak Estatuko Ogasunari.

los ejercicios 2011-12-13-14-15, a las haciendas públicas correspondientes de la Comunidad Autónoma Vasca, sujetas a tributación en el IRPF y que en su momento no lo realizó. Teniendo en cuenta que funcionarios de la Ertzaintza realizan su declaración de la renta fuera de la Comunidad Autónoma Vasca y Usted ha tenido que realizar los correspondientes pagos a la Hacienda Estatal de dichos funcionarios.

BIGARRENA.- Konstituzioaren 105. artikulua b) idatzi-zatian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluko d) idatzi-zatian, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. eta 17. artikuluetan ezarritakoaren arabera, alderdi honek honako hau ESKATZEN DIZU:

SEGUNDO.- Que según el Art. 105 apartado b) de la Constitución; en el artículo 13, apartado d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; y en los artículos 12 y 17 de la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, esta parte le SOLICITA:

LEHENENA.- 2011/12/13/14/15 ekitaldian Ertzaintzako langileentzako kalte-ordainen gastuei dagozkien eta zerga ordaindu behar duten eta bere garaian ordaindu ez zituen zenbatekoen ordainketaren (diru publikoa) berri ematea urtearen arabera banakatuta, betiere Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo errenta-aitorpena egiten duten Ertzaintzako funtzionarioei dagokienez (Foru Aldundiak Estatuko Ogasunari egindakoa),(idatzi honen lehenengo puntuan adierazitakoaren ildotik.,

PRIMERO.- Me informe del pago (dinero público) de las cantidades correspondientes a los gastos por indemnizaciones al personal de la Ertzaintza en los ejercicios 2011-12-13-14-15, sujetas a tributación y que en su momento no lo realizó, del punto primero de este escrito, desglosado por año, que ha realizado esta Diputación, a la Hacienda Estatal, de los funcionarios de la Ertzaintza que realizan su declaración de la renta fuera de la Comunidad Autónoma Vasca,

BIGARRENA.- Aurreko puntuan, Estatuko Ogasunari egindako ordainketen fiskalizazioaren eta kontabilitatearen data (eguna, hilabetea, urtea) jakinaraztea. Informazio hori ordainketa-agiriekin egiaztatzea.

SEGUNDO.- Me informe la fecha (día, mes, año), de la fiscalización y contabilidad, de los referidos pagos a la Hacienda Estatal, del anterior punto. Dicha información me lo acredite con los documentos de pago.

BIGARRENA.- Aurreko eskaera Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiaren 2021eko urtarrilaren 25eko ebazpenaren bidez ukatu zen, honako arrazoi hauek tarteko:

SEGUNDO.- La solicitud anterior fue denegada por resolución del Director General de la Hacienda Foral de Bizkaia, de 25 de enero de 2021 con la siguiente motivación:



"(...) Eskaera horri dagokionez, kontuan izan behar da Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94. artikuluan xedaturikoa, non, "Zerga-ordainketan eragina duten datuak isilpean eduki beharra" izenburupean, honako hau adierazten baita:

"1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ez jakinarazi, xede hauetako baterako izan ezean: (...)".

Jarraian, aipaturiko 94. artikulua eta 94 bis artikulua (biak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araukoak) zergei buruzko datuak (guztiak beste administrazio publiko batzuekin ezartzen diren lankidetzaz-esparruari dagozkionak) lagatzeko aukera duten salbuespenezko zenbait kasu ezartzen ditu; baina ezingo da, inolaz ere, honelako datuak beste izaera bateko (administrazio publikoen bestelakoa) hirugarrenei laga, salbu eta zerga-betebeharren ez-betetze larrien publizitateari dagokionez, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94 ter artikuluan arautua.

Hortik ondorioztatzen denaren arabera, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorrean Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direla ezartzen da. Datu, txosten edo aurrekari horiek, kudeatu beharreko zerga edo baliabideak ezartzeko eta dagozkion zehapenak jartzeko baino ezin dira erabili, eta ezin zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, salbu eta Foru Arau horren 94., 94 bis eta 94 ter artikuluetan

"(...) En lo que respecta a dicha solicitud, debe tenerse en cuenta lo dispuesto en el artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, en el que bajo el título de "Carácter reservado de los datos con trascendencia tributaria", se indica que:

"1. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado y sólo podrán ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo que la cesión tenga por objeto: (...)".

A continuación, el citado artículo 94 y el artículo 94 bis, ambos de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, enumeran una serie de supuestos excepcionales en los que pueden cederse los datos tributarios relativos, todos ellos, al ámbito de la colaboración con otras Administraciones públicas, sin que sea posible, en ningún caso, ceder esta clase de datos a terceros de otra naturaleza (distintos de las referidas Administraciones públicas), salvo en lo que respecta a la publicidad de las situaciones de incumplimiento relevante de las obligaciones tributarias, regulada en el artículo 94 ter de la misma Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo.

De donde se deduce que la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, establece el carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones, los cuales únicamente pueden ser utilizados para la efectiva aplicación de los tributos o recursos cuya gestión tenga encomendada y para la imposición de las sanciones que procedan, sin que puedan ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos



jasotako tasaturiko kasuetan (horietako bat ere ez da aplikagarria kasu honetan).

tasados recogidos en los artículos 94, 94 bis y 94 ter de dicha Norma Foral, ninguno de los cuales resulta de aplicación en el presente caso.

Aurreko guztiaren ildo beretik, Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/20216 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian honako hau aurreikusten da:

“Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onarturiko Euskal Herriko Autonomia Estatutoaren 41. artikuluan eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onarturiko Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, foru arau honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuei, txostenei edo aurrekariari dagokienez; horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan eta horren garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira”.

De forma coherente con todo lo anterior, la disposición adicional tercera de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, prevé que:

“De conformidad con lo previsto en el artículo 41 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por medio de Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y en el Concerto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por medio de Ley 12/2002, de 23 de mayo, lo dispuesto en esta Norma Foral no será aplicable en relación con los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones que se regirán por lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y en sus disposiciones de desarrollo”.

Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arau honek pertsona fisikoek eta juridikoek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea aitortzen du, bertan eta gai horri buruzko legeria orokorrean jasotako moduan. Hala ere, Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direla berretsi du, eta horiek hirugarrenei jakinaraztea Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arauan xedaturikoaren arabera arautzen dela.

Esta Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, reconoce el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública en los términos recogidos en ella y en la legislación general sobre la materia, si bien reitera el carácter reservado que tienen los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones, cuya comunicación a terceros se rige por lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Kasu honetan, 2011ko ekitalditik 2015ekora bitartean (biak barne) Eusko Jaurlaritzak Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren bidez Ertzaintzari ordaindu zizkion kalte-ordainen zenbait atxikipenei buruzko informazioa eskatzen da. Beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorreko 94. artikuluan

En el presente caso, se solicita información acerca de determinadas retenciones por indemnizaciones abonadas al personal de la Ertzaintza durante los ejercicios 2011 a 2015, ambos inclusive, ingresadas en esta Hacienda Foral de Bizkaia por parte del Gobierno Vasco, a través de su Dirección de Función Pública, por lo que, atendiendo a lo indicado en el



eta Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/20216 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraikiz, aipaturiko informazio-eskaera ukatu behar da.

HIRUGARRENA. – Aurreko ezezkoaren aurka, jaunak erreklamazio hau aurkeztu zuen Batzorde honetan 2021eko otsailaren 2an, eta, bere uziaren alde, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aipatu zuen (1., 2,17,18., 20., 21. eta 24. artikulua).

Gaineratu du errekurtsio honetan deskribatutako arauetatik, Aldundiaren gardentasuna arautzen dutenetatik, ez duela lege-oztoporik aurkitzen eskatutako informazioa bidaltzeko:

"Nire eskaera ulertu ez bada edo nire burua ondo azaldu ez badut, alderdi honek eskatzen duen gauza bakarra honakoa da: Bizkaiko Foru Aldundiak jasotako diru bat, Eusko Jaurlaritzak hiru ordainketatan sartu zuena (703.155,56, 117.063,15 eta 51.991,87 euro, Segurtasun Sailak emandako informazio horretan akatsik edo omisiorik egon ezean), eta diru horren zati bat, hain zuzen ere, Aldundiak beste administrazio batean sartutakoa adieraztea: zein izan zen zenbatekoa eta sarreraren ordainagiriak, data eta guzti.

Ez dut eskatzen inongo herritar, funtzionario edo enpresari buruzko informazio fiskalik; nire eskaera Estatuko Administrazioan sartu den Bizkaiko Foru Aldundiaren informazio kuantitatiboa da; beraz, martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauak, informazioa ukatzeko Aldundiaren Ebazpenean adierazitakoak, ez du arautzen herritarrek informazio publikoa eskuratzea.

Nire eskaera ezetsiz, urratu egiten da herritarrek eta hura interpretatzen duen jurisprudentziak administrazio publikoetatik informazioa lortzeko

artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y en la disposición adicional tercera de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, debe denegarse dicha solicitud de Información.

TERCERO. – Contra la denegación anterior interpuso el 2 de febrero de 2021 la presente reclamación ante esta Comisión, citando en apoyo de su pretensión la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (artículos 1, 2,17,18, 20, 21 y 24).

Añade que, de las normas descritas en este recurso, que regulan la transparencia de la Diputación, no encuentra ningún obstáculo legal para la remisión de la información solicitada:

"Por si mi solicitud no se ha entendido o yo no me he explicado bien, esta parte lo único que solicita, es que sobre un dinero recibido por la Diputación Foral de Bizkaia, que fue ingresado por el Gobierno Vasco realizado en tres pagos; 703.155,56, 117.063,15 y 51.991,87 euros (salvo error u omisión de dicha información facilitada por el Departamento de Seguridad), y que una parte de ese dinero, tuvo que ser ingresado a su vez por la Diputación a otra Administración pública (en este caso del estado), se me dé: cuál fue el importe y los justificantes de los ingresos, con su fecha completa.

No solicito ninguna información fiscal de ningún ciudadano, funcionario o empresa, mi solicitud es información cuantitativa de la Diputación Foral de Bizkaia que ha ingresado en la Administración Estatal, por lo que la norma foral 2/2005 de 10 de marzo indicada en la Resolución de la Diputación para la denegación de la información, no regula el acceso por los ciudadanos a la información pública.

Que con la desestimación de mi solicitud, se está vulnerando el derecho que tienen los ciudadanos y la jurisprudencia que la



duten eskubidea, eta, zehazki, Espainiako Konstituzioaren 105. b) idatz-zatia; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluko d) idatz-zatia; eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. eta 17. artikulua.

interpreta, a obtener información de las Administraciones públicas y en concreto; Art. 105 apartado b) de la Constitución Española; en el artículo 13, apartado d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; y en los artículos 12 y 17 de la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno”.

Azkenik, Auzitegi Gorenaren 2020ko eskainaren 11ko epaia, 577/2019 errekurtsioa eta Auzitegi Gorenaren 1565/2020 epaia aipatzen ditu (2614/2019 kasazioa).

Por último, cita sentencia del Tribunal Supremo de 11 de junio de 2020, recurso 577/2019, y Sentencia, también del Tribunal Supremo, 1565/2020, casación 2614/2019

Amaitzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak 2021eko urtarrilaren 25ean emandako ezezkoaren deuseztasuna eskatu du, honako hau jakinarazteko:

Termina solicitando la nulidad de la denegación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 25 de enero de 2021, de forma que se le informe:

“LEHENENGOA. - 2011-12-13-14-15 ekitaldietako (703.155,56, 117.063,15 eta 51.991,87 euro sartu dira Bizkaiko Aldundian) atxikipenen likidazioak EIn sartzen dituzten Ertzaintzako langileen kalte-ordainen gastuei dagokienez, jakinaraztea Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Ogasunari zenbat ordaindu dion Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo errenta-aitorpena egiten duten Ertzaintzako funtzionarioen kasuan.

“PRIMERO. - De las cantidades correspondientes a los gastos por indemnizaciones al personal de la Ertzaintza que ingreso el GV de liquidaciones retenciones pendientes de los ejercicios 2011-12-13-14-15 (703.155,56, 117.063,15 y 51.991,87 euros ingresadas en diputación Bizkaia), me informe cuanto ha ingresado esta Diputación de Bizkaia a la Hacienda Estatal, de los funcionarios de la Ertzaintza que realizan su declaración de la renta fuera de la Comunidad Autónoma Vasca.

BIGARRENA. - Jakinaraztea zein den aurreko puntuko zenbatekoa, noiz (eguna, hilabetea, urtea), zein den fiskalizazioa eta kontabilitatea, eta zein diren Estatuko Ogasunari egindako ordainketak. Informazio hori ordainketa-agirien bidez egiaztatzea”.

SEGUNDO. - Me informe de la cantidad del punto anterior, la fecha (día, mes, año), de la fiscalización y contabilidad, de los referidos pagos a la Hacienda Estatal. Dicha información me lo acredite con los documentos de pago”.

LAUGARRENA. - Batzorde honek Ogasun eta Finantza Sailari eskatu zion izapidetutako espedientea bidaltzeko eta egindako erreklamazioari buruzko txostena egiteko.

CUARTO. - Esta Comisión solicitó al Departamento de Hacienda y Finanzas, la remisión del expediente tramitado e informe en relación con la reclamación formulada

2021eko otsailaren 25ean, Foru Ogasuneko zuzendariak eskatutako txostena bidali zion Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honi. Txosten horretan, bere

El 25 de febrero de 2021, el director de la Hacienda Foral remitió a esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia el informe solicitado, en el que se reafirmaba en



erabakia berresten zen, eta aplikagarria iruditzen zaion araudiaren azterketa zabal batean oinarritzen zen.

su decisión, fundamentándola en un extenso análisis de la normativa que considera aplicable

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

LEHENA.- Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu da.

Foru Arau horren 29.1.1. artikulua arabera, 2. artikuluekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuergoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: "a) *Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*"

BIGARRENA.- Eskaera honetan, erreklamatzaileak alegatzen du bere eskaera ezesteko erabakiak urratu egiten duela administrazio publikoetatik informazioa lortzeko duen eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua b) letran, Administrazio Publikoen Administrazio

PRIMERO.- La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "a) *Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*"

SEGUNDO.- En la presente instancia el reclamante alega que el acuerdo de desestimación de su solicitud vulnera su derecho a obtener información de las Administraciones públicas, amparado por el artículo 105, apartado b) de la Constitución Española, en el artículo 13, apartado d) de la



Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13. artikuluan d) letran eta gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeko bideari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 12. eta 17. artikuluetan babestuta.

Horri dagokionez, gogorarazi behar da administrazio-artxibo eta -erregistroetarako sarbidea, 105. artikulua arautzen duena, ez dagoela Konstituzioaren I. Tituluko Bigarren Kapitulan jasotako eskubideen artean, baizik eta IV. Tituluan, Jaurlearitza eta Administrazioari buruzkoan. Titulu horretan, sarbide hori legez arautu beharko dela baino ez da ezartzen. Beraz, ez gaude Konstituzioko Oinarrizko Eskubideetako baten aurrean, baizik eta arautzeko moduari buruzko agindu baten aurrean.

Une bakoitzean indarrean dagoen legeriak zehaztuko ditu irispide-eskubidearen mugak, 105. artikuluan bertan aurreikusitako salbuespenak errespetatuta.

Erreklamatzailerak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen babesean egin du eskaera. Baina ezin da ahaztu urriaren 1eko 39/2015 Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak tributuen arloko tributuen aplikazio-jarduerak eta -prozedurak kentzen dituela bere aplikazio-eremutik, eta horietarako izaera osagarria baino ez duela izango.

Eta abenduaren 9ko 19/2013 Legeari dagokionez, adierazi behar da foru-administrazioaren eremuan Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatu behar dela, zeinaren babesean sortu eta jarduten baitu Batzorde honek, eta haren edukia, funtsean, hark ezarritakoaren antzekoa baita.

HIRUGARRENA.- Lehen aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18. artikuluan

Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en los artículos 12 y 17 de la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

A este respecto, procede recordar que el acceso a los archivos y registros administrativos, regulado por el artículo 105, no figura entre los derechos recogidos en el Capítulo Segundo del Título I de la Constitución, sino en el Título IV, dedicado al Gobierno y la Administración, donde únicamente se establece que dicho acceso habrá de ser regulado por Ley. No estamos, por tanto, ante uno de los Derechos Fundamentales de la Carta Magna, sino ante un mandato respecto a su forma de regulación.

Será la legislación vigente en cada momento la que precise los límites del derecho de acceso, con respeto a las salvedades previstas en el propio artículo 105.

El reclamante sustenta su solicitud al amparo de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y la Ley 19/2013 de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. Pero no puede obviarse que la Disposición Adicional Primera de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, sustrae de su ámbito de aplicación las actuaciones y procedimientos de aplicación de los tributos en materia tributaria, para los cuales únicamente tendrá carácter supletorio.

Y por lo que a la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, hace referencia, cabe señalar que en el ámbito de la administración foral resulta de aplicación la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, a cuyo amparo surge y actúa esta Comisión, y cuyo contenido se asemeja, en lo fundamental, a lo establecido por aquella.

TERCERO.- La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18-



aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoei eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17-2 artikulua araberaz, honako hau da: "(...) foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)".

Ondorioz, Arauak lehenik ere baden informazio bat eskuratzeko eskariaren xedea zehazten du. Informazio hori lehenik dagoela diogu, hain zuzen ere, eskaria jasotzen duen organoaren esku dagoelako, bai berak egin duelako, bai berak eskuratu duelako aginduta dituen eginkizunak edo eskumenak betetzean.

LAUGARRENA.- Hala ere, foru-arau horrek salbuespen bat aurreikusten du hirugarren xedapen gehigarrian, datuen izaera dela eta. Horren arabera, zerga-administrazioak bere eginkizunak betetzean lortzen duen informazioa bere aplikazio-eremutik kentzen du, baldintza hauetan:

"Hirugarrena.- zerga-administrazioak lortutako datuak.

"Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onarturiko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onarturiko Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, foru arau honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuei, txostenei edo aurrekariari dagokienez; horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan eta horren garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira".

Hau da, gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudia aplikagarria bada ere Foru

1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17-2 de la misma Norma Foral, como: "(...) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones (...)".

Por tanto, la Norma define el objeto de una solicitud de acceso a la información en relación con la que ya existe, por cuanto obra en poder del órgano que recibe la solicitud, bien porque el mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

